

JARDUERA OSAGARRIAK eta ESKOLAZ KANPOKO ARAUTEGIAK

1. JARDUERA OSAGARRIAK eta ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA OSAGARRIAK

ARAUAK

- Eskolaz kanpoko ekintza, ikastetxea kokaturik dagoen herritik kanpo egin behar denean, adin nagusikoak ez diren ikasleen guraso edo legezko tutoreen baimena idatzia behar da.
- Eskolaz kanpoko irteerak, txangoak, udalekoak eta abar planifikatzean, kontuan hartu beharko dira ikasle guztien premiak, hpb dituztenenak barne. Ikasle guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea; beraz, alde zuzenetik ikusi, eta egokienak aukeratu beharko dira, inor ez bazterzen ahaleginduz. Planifikazio hori egiterakoan, kontuan hartuko da hezkuntza laguntzako langile espezialisten iritzia.
- Horrelako jardunen bat burutzeak ikastetxeak finantziatu ezin duen gasturik balekar, ikasleriari diru-kopuru bat eska lekioko helburu horretarako.
- Jarduera osagarriak, familia guztiek ordaintzeko modukoak izan behar dute. Hau dela eta gehienez ikasturtean 4 kuota adina diru baino gehiago ezingo da izan bere balioa. (Ikastolan erabakita ZT hedatuko akta 16-10-2012).
- Jardun garestiagoak edo ez denak joateko modukoak ere eskain daitezke egutegi eta ordutegi lektibotik kanpo, baina aukerazkoak izan behar dute eta curriculumetik kanpokoak. (Ikastolan erabakita)
- Nolabaiteko kuota jartzekotan, burutu beharreko jardunen kostuak ordaintzeko dirua eska dakieke ikastetxeak beren borondatez ari diren ikasleei, ekonomi arazoak dituztenentzako dirulaguntzak edo salbuespenak aurreikusiko direlarik.
- Jardun osagarri berriak nahiz eskolaz kanpoko jardun berriak onartzeko gurasoei eta ikasleei noiz nork eta nola kontsultatu arautu bitartean, indarrean dagoen Tutorizazio Orientazio prozesuaren barne koordinazio kontsulta erabiliko dute tutoreek (Tut Arduradunak, Orientatzailea, EHZT).
- Ikasleek ikasgelan landutako edukien ikaskuntzak sendotu behar dituzte ezinbestez ikaskuntza pertsonalaren bidez. Egin behar horretan laguntzeko, irakasleek etxean zenbait lan egiteko agin diezaiekete ikasleei, alabaina lan horien balorazioa ez da erabakigarria izango ebaluazioan. Aipatutako lanak osagarriak izango dira eta ezingo dute ikasgelan landu ez diren edukiei buruzkoak izan.

JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKOAK

Ebazpen honetako zenbait ataletan aipatu da beharrezkoa dela jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak baliabide gehigarri gisa hartzea, ikasleak gelan hasten eta garatzen dituen ikaskuntza formalak finkatzeko. Oinarrizko gaitasun guztiak ikaslea bizi den

ingurunearekin funtzionalki lotu behar dira, eta horrexegatik jarduera osagarriek eta eskolaz kanpokoek baliabide didaktiko, esperientziazko eta ikaskuntzako garrantzitsua dira, kasu askotan ikasgelan ezinezkoa baita horrelakorik egitea.

Hori dela-eta, hezkuntza-komunitateari iradokitzen diogu diagnostika dezatela jarduera osagarriek eta eskolaz kanpokoek zein aukera eskaintzen dituzten eskola inklusibo, etiko eta eleaniztunaren printzipioak hedatzeko eta horiek ikasleak egunero parte hartzen duen familia- eta gizarte-ingurunean sendotzeko. Ikastetxe batek jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak antolatzen dituenean, horiek Ikastetxearen Urteko Planean jaso beharko dira, eta, jasota ez badaude, Ordezkaritza Organo Gorenak aurrez onetsi beharko ditu.

Jarduera osagarriak, ikasleekin ikastorduetan egiten diren ekintza didaktikoak dira, baina, programazioaren barruan sartzen badira ere, izaera berezia dute, bai egiten diren unearengatik, tokiarengatik, eskatzen duten baliabideengatik edota esku-hartzeen mailagatik. Ekintza horiek ikasle guztiei zabalduak egon behar dute. Horien artean sartuko lirateke: barnetegietan edota nekazaritza-eskoletan egonaldiak, ikastetxean egindako festak, hezkuntza-ekimen bereziak, gelaz kanpoko ekintzak (ikustaldiak, landa-lanak...), irteerak, ikasbidaiak, ikasturte amaierako bidaiak, elkartrukeak...

Jarduera didaktikoak egiteko, adingabe diren ikasleek ikastetxetik kanpo atera behar dutenean, ikasle horien guraso edo legezko tutoreen baimen idatzia beharko da. Ikastetxetik kanpo egiten den edozein jarduera osagarritan, ikasleekin batera gutxienez bi pertsonak egon beharko dute beti, eta horietako bat, gutxienez, ikastetxeko irakaslea izango da; hala dagokionean, hezkuntza-laguntzako espezialistek ere egon beharko dute. Bestalde, ikasleei laguntzeko irakasle-kopuruari dagokionez, gutxienez irakasle bat egongo da 20 ikasleko edo irakasle bat 10etik gorako zatikiko, betiere aurrez aipatu gutxienerako irakasle-kopurua errespetatuz. Ahal den neurrian, irakasle laguntzaileak jarduera horretan parte hartzen duten ikasleen talde didaktikoko kideak izango dira.

Zuzendariak, edo hark eskuordetutako pertsonak, ikasleek ikastorduetan egiten dituzten irteeren eta ikastetxean edo handik kanpora egindako eskolaz kanpoko ekintzen erregistro bat eramango du, non zehaztuko diren irteera bakoitzean parte hartu duten pertsonak, irakasle laguntzaileen kopurua eta irteeren data, ordua, iraupena eta edukia.

Txosten horrek ikastetxean egon beharko du, Ikuskaritzaren eta Ordezkaritza Organo Gorenaren esku egon dadin. Ikastetxe batek, jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak planifikatzean, ikasle guztiak kontuan hartu behar ditu, hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne. Ikasle guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea; beraz, hori aintzat hartuta, eta ikastetxearen beraren baliabideekin, jarduera egokienak aukeratu beharko dira, ahaleginak eginez inor baztertuta izan ez dadin. Plangintza hori taxutzeko orduan, kontuan izango dira ikastetxearen baliabide propioak eta bertako irakasle eta hezkuntza-profesionalen parte hartzeko aukera.

Eskolaz kanpoko ekintzak: Ikasleekin ikastorduetatik kanpo egin eta partehartzea borondatezkoa duten ekintzak, curriculumarekin erlazio zuzenik gabekoak. Ekintza horien plangintza egiterakoan helburuak, arduradunak, unea eta tokia zehaztuko dira eta baita ikasleek nola parte hartuko duten ere. Ekonomi ezaugarriek edo ondorioek urteko kudeaketa-programan azaldu beharko dute.

<i>Ikasle kopura taldeko</i>	<i>Zaintzaile kopurua</i>
20-30	2 nagusi, 1 irakaslea gutxienez
31-40	3 nagusi, 2 irakasle gutxienez
41-50	4 nagusi, 3 irakasle gutxienez
51-60	5 nagusi, 4 irakasle gutxienez

Hemen, jasotakoa interpretatzen laguntzeko taula (zuzendariak ikuskariarekin kontrastatua, 2014ko apirilaren 12an)

2. IRTEERETARA JOATEKO BALDINTZAK

Zikloan programa hauek gauzatu arte, bizikidetzaren aurkako kalte larririk ez egitea. Arlo batekiko lotura zuzena duten ekimenetan baldintza hauez gain, arloak berak eskatzen dituenak bete beharko dira.

Azken hiru ebaluazioetako hiru arlotan jarrera baxurik ez izatea, edo/eta zikloan sei jarrera baxu ez izatea.

Irteeretara ez doazen ikasleak Ikastetxean atendituak izango dira.

3-Elkartrukea Elgoibar Ikastola-Litherland High School

2004-05 ikasturtetik aurrera DBH 4an egiten den eskolaz kanpoko jarduera da. Ikasleek jarduera hau bi zatitan burutzen dute. Zati bakoitzak gutxienez 14 egun izango ditu (bidaia barne). Zati hauetako bat Liverpoolen burutzen den egonaldi bat da, Litherland High School ikastetxeko familietan, eskola orduetan ikastetxean bertan egonik. Honek guztiak, azken finean, bermatzen du ingeles kulturaren murgilpen esperientzia osoa izatea.

Ikasleek atzerriko hizkuntza eguneroko egoera errealean, zuzenean, erabiltzea dakar, kulturartekotasun esperientzi bat bizitzeko aukera ematen die, eta programarekin batera garatzen den proiektuari esker Elkartrukearen aurretik, bitartean eta ondorengo lanean zehar Elkartrukeko ikasle-kideekin elkarlan esperientzia teko izatera iristen dira.

Elkartrukeak berarekin behar ditu:

- Ikasleen eta irakasleen arteko lan saioa proiektuak garatzen joateko.
- Elkartutako ikastetxearen ezagutza emateko eskola jardunak.
- Bisitatzen den herrialdea ezagutzen lagunduko duten irtenaldiak/ ibilaldiak.
- Familiarteko giroa bizitzeko guneak/momentuak.
- Bidaiatzen duten ikasleentzako aisialdi denbora.

Amaitzeko, jardun honen helburu pedagogikoak honako hauek dira:

- Ikastolan ikasitako ingelesa egoera erreal batean praktikan jartzea.
- Ingelesez aritzeko konfiantza izatea.
- Entzutezko ulermena lantzea.
- Kultura eta bizimodu desberdin bat ezagutzea.
- Jardun hau eskolaz kanpoko bezala hartzen da bere helburuak kurrikulumak jasotzen dituen oinarritzko helburuen osagarriak eta hauek gainditzen dituztenak direlako, eta izan dezakeen kostuarengatik eta eskola garaian eskatuko lukeen ordu kopuruarengatik ikasle guztientzako derrigorrezko jardunaren eremua nabarmenki gainditzen duelako.
- Jardun honetan ikasleek parte hartu izateko ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

ELKARTRUKEAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

- Irteerako erreserba egin aurreko 12 hilabeteetan Ikastolako bizikidetzari egindako kalte larririk ez izatea.
- Adskribatzen zaion familia onartzea.
- Adskribatzen zaion ikaslea etxean hartzea.
- Aurkezten den aurrekontua onartzea.
- Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek parte hartuko duten edo ez adierazi beharko dute.

- **Ingelesa indartzeko programarako lehentasun irizpideak:**

Eskabidea joan daitezken ikasle kopurua baino handiagoa bada, ondorengo lehentasun irizpideak aplikatuko dira:

- Lehentasuna izango dute azken 12 hilabeteetan ingelesean jarrera altuena duten ikasleak.

Irizpide hauek aplikatuz gero, Litherland High School-ekin adostutako ikasle kopurua baino altuagoa aterako balitz, zozketara joko litzateke.